



# ANGELES OLALDE

*Emakume honek eztako presentaziño biharrrik, herriean oso ezaguna dalako pasadizuak eta historixak kontaitteko dakon abilidadiagatik.*

*Berarengana elkarrizketia egittera jo gebenian be, idatzitta eukan esan biharrekuak eta berak esandako modu-moduan hementxe jaso dittugu, eurok irakurten ondo pasauko dozuelakuan.*



Ni, Angeles Olalde naiz, Sillerona. jubilaua, ni izango nintzan Oñatioko dendari zaharrena. Hamabi urterekin hasi eta eta orain arte lanian, gustora, pozik eta alegre betik. Denporia pasau xat aguro bai aguro. Que pena!

Eskolia ikasi neben nehikua 12 urtera arte; maistria erdelduna zan, oso zailla zan ikastia. Etxat ahazketan:

*Oñate. Oñate está situado al pie de Nuestra Señora de Aránzazu y tiene el palacio del duque de Sotomayor, la antigua Universidad, Bidaurreta, Santa Ana, Sagrado Corazón, la casa consistorial, la iglesia parroquial y algunos palacios particulares.*

Egunero hauxe esaten ondo bai ikasi.


Aittak esan nostanian "nehikua eskola da orain arteku". Ha zan poza! zoraketan. Karretilla haundi baldar batekin merkaura, ferixara, jo ta ke alde danetara: alpargatak,

albarkak, erremintak, baserriko gauzak saltzen aittarekin.

Gerra denporan ikasi neben alpar-gatak josten. Ha zan ofizio politik!

Jolas asko egin barikua naiz nere denporan. Kale barri dana zan baserrixa eta etzan falta burdiren bat edo karroren bat parian. Ta hantxe puntan jarri bat hankalatrabba eta beste lau edo bost burdixa-ren atzetik:

*Txutxurrutxu!  
Zer dakatzu?  
Olatia.  
Norentzako?  
Abadianzako.  
Abadia zetako?  
Mezia emuteko.  
Mezia zetako?  
Zerura fateko.  
Zerua zetako?  
Pastelak jateko.  
Pastelak zetako?  
Agiñak ustelketako.  
Agiña zetako?  
Sutara botateko.  
Sua zetako?*



PEUGEOT-TALBOT AGENTEA  
**OÑATI K. Elk. GARAJEJA**

Goribar Auzoa, z/g. Tfnoa. 78 13 50 OÑATI



**IZOZKI**  
ERA GUZTIETAKO  
IZOZKIAK

Olakua, 9 - Tel. 78 34 28 - OÑATI  
HARAGIAK, ARRAINAK, BARAZKIAK,  
MASKORRAK, GOZOKIAK



*Lapikua egosteko.  
Postria nuentzako?  
Joxepatxontzako.*

Komuniua preparaitten Zabaleta abadiak esaten oskun: "Bizia da paso bat eta gu danok paso honetan gaude, hemengua segidan akabatzen da". Horri ezkotzan kasorik egiten, ezkeben entenditzen. Hori da egixa, baiña oso egixa, gaur konturaketa naiz.

Ni zahartu egin naiz aguro, baiña oso aguro, "aitiaren ta semiaren" egin orduko jubilaitteko denporia allegau. Baiña oraindiok lehen ikasitako ofiziuari obatu egitten xat; gutxi baiña gustora, denporapasa, alpargatak josten.

*Alpargatalak urratu  
ta zapatarik ez,  
Ernion gelditu nintzan  
oiñeko miñez.  
Hauxe da gerria,  
zortziko trukia,  
hiru txiki  
ardoarekin  
librako ogia.*

- Lehengua zan latza, zailla eta nekeza. Makiña bat aldiz entzuten neben dendar: "Hi Angeles, infernura fan bihar haiz, andrairi diru dana gastau eragin bi gauzatxo erosten" eta nik kulpia. Eztagoz gaur begira andra hareik.

Nik orain alpargatak josten ikastolako andereñuairi erakusten dosten eta gero beraik umiairi.

\*\*\*\*\*

Gerra denporan señorita bat dendarako aldaba joten ordua baño lehenago:

- Tan tan!

Nik goittik:

- Nor da?  
- Mi.

Erdelduna da ba:

- ¿Qué querer?  
- Afraketas para yo.  
- ¿Qué lúmbero?  
- Treta y ziete.  
- Sólo hay de saco.  
- De zaco no la quiero.  
- Adiós.  
- Adiós.

Gero fan zan botikara:

- Un frasco de pintura oro, un paquete de guasa y un botella de

*agua esagerosa envuelto en un piririko limpio.*

Botikaixua ikaratuta erderaz hain ederto ekixelako, lehenengo yodo, bigarren guata eta hirugarren agua oxigenada emun otzan.

Eta halaxe 20 urte onak pasau ziran ikasten erderaz nehikua disparate esanaz.

Oñatiko enplio importante danak erdeldunak eukain gerra denporan. Korreosetan, oso genixo bizixakin, jefia; fan pakete bat soldaubarri bialketara eta paketia harrika, "está mal" eta andria dardarixoka. Makiñatxo bateri letxe egin notzan paketia, ondo, zapata kajan eta "aber orain ze esaten dotzun". Hurrengo, papel haundi bat beteteko. Noizko paketiori allegau saldaorri!

Beste kastellano bat alhondigan, oso genixo berokua. Gerra denporan oli-xua allegau aiuntamentura, baiña lehenego kartillia egin bihar gero razionamendua jasoteko eta akabera bariko kolia:

- ¿Vosotras cuántos sois en familia?  
- Cuatro.  
- Nombres y apellidos.

Atzera beste bat:

- ¿Vosotras cuántos sois en familia?  
- Seis  
- Nombres y apellidos.

Bat etorri zan:

- Gu 8, o así.  
- Fuera, fuera, fuera!  
Sustauta kanpora. "Bueno berriz kolara, orain esango xat 7, aber ze esaten dosten".

Noizbaitten allegau eta esaten xau:

- Gu, 7, o así.  
- Fuera, fuera, fuera!

Negarrez neskiori. Juntau gintzan neskatilla pilla bat berarekin eta, "aber kontau". "Aittajuna, amandria, ama, aitta, Joxepa, Gorgorio, Iñaxi ta Maria, 8 danok". Hala ba, fan atzera kolara eta txandia tokau xakonian danon artian entendidu gintzan; palabra bat gaizki eta ze mobidia. "O así" esan eta fuera, izan be kastillanuak oso esatuak dira.

\*\*\*\*\*

- Gaur nere eguna -andra batek beste bateri.

- Ola, urte askotarako.  
- Eskerrikasko.  
- Zelebrau biharko dozue!  
- Bai, ondo be, urtero jaten txonau piper poteko melakatoiak.

Badoia beste andra bat Don Bixente medikuarengana:

- Don Bixente, ume honek eztau egiten bentajarik eta andra batek esan dost dinamita onak dagozela bentaja egiteko.

- Jesus eta Maria! Jesus eta Maria! zer dixo emakume honek!

Hauxe polittena, neuri pasautakua gaztetan, 30 urterekin. Loterixia tokau hogei mila pezeta duro batekin. Nik ezin lorik egin egunetan eta aitta zoratu, balkuepetik pasaitten ziran danairi esan bihar:

- Teresa, enterau zara?  
- Ni ez.  
- Gure Angeleseri loterixia tokau.  
- Asko?  
- Bai, asko; 20 mila pezeta.

Beste andra bat kalian behera:

- Zu enterau zara?  
- Ez.  
- Gure Angeleseri loterixan 20 mila pezeta.

Hortantxe egun guztia. Hareitxek izan ziran egunik eta asterik Iuzienak.

Egun baten badator andra bat den-dara:

- Angeles, atara eidan zapatillarik onen-onenak.  
- Ene! Zer ba?  
- Pozik natorrelako medikuanetik. Pasau nixonan katarro txar bat eta nere gogua raiosian ikustia zongan; eta halaxe ikusten naixon eta hor esaten xostan "Usted es joven". "No, 80 años". "Señora no importa una de 80 puede estar como 40". Hau don poza!

Orain akaberarako Mikel Aozarazari fabore bat eskatuz:

Oñati txiki dala  
mapan ezin ikusi,  
baiña gure santuaz  
Japoneraiño nausia.

Mikel Aozaraza  
Oñati erdiko semea  
begiratu ta zure indarra  
fedeaz ta pakeaz behar degu.

Bueno, agur! hurrenguan gehixago kontauko dotzuet.